

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 58/2015 FORU DEKRETUA,  
apirilaren 21ekoa. Honen bidez, Oinordetza eta  
Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua  
onesten da  
(BAO Apirilaren 27koa)**

Oinordetza eta Dohaintzen Gaineko Zergari buruzko 2015eko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauak pertsona fisikoek dohainik lortzen dituzten ondare-gehikuntzak kargatzen dituen zerga honen arau-esparru berria jasotzen du.

Foru-arau horrekin lortu nahi den funtsezko helburua zerga honen arautegiaren koherentzia bermatzea da, koherentzia hori batzuetan gutxitu egin baita egun indargabetuta dagoen 1989ko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren testu bateginean egindako aldaketa partzial etengabeen ondorioz. Gainera, arau hori aldendu egin zen foru-arauentzat artikulua kopurua mugatua ezartzen zuen arauketa fiskalerako eredutik, baina, aldi berean, erregelamendu bidezko garapen zabala behar zuen, arauko artikuluetan bertan erregelamenduari buruzko aipamen ugari baitago.

Esparru horretan zegoen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen 2001eko ekainaren 5eko 107/2001 Foru Dekretua, baina esparru hori -logikoa denez- gainditu egin du arauketa berri horrek.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da erregelamendua berria onestea, zeina Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko foru-arau berriari moldatuko zaion, baina prozedurari lotutako gaiak soilik garatuko ditu erregelamenduak, zerga sinpleagoa eta eraginkorragoa lortzearen.

Ondorioz, erregelamendu honek artikulua gutxiago ditu aurreko erregelamenduak baino (oraingoak, 24; aurrekoak, 115), eta teknikoagoa da, kontuan hartzen baititu Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kudeaketa dela-eta aitortpen, autolikidazio eta agirien izapidetzeari, balioak egiaztatzeari eta beste prozedura batzuei buruz izandako aldaketak.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2015eko apirilaren 21eko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau.

XEDATZEN DUT:

**Artikulu bakarra. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onestea.**

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten da, eta foru-dekretu honi eranskin legez batzen zaio.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

### **Bakarra.**

1. Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da 2001eko ekainaren 5eko 107/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Araudia.
2. Halaber, indargabetuta geratuko dira foru-dekretu honetan xedatzen denaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehena. Indarrean jartzea.**

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2015eko apirilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

### **Bigarrena. Garapena.**

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru-dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

## **ERANSKINA . OINORDETZA ETA DOHAINZTEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ARAUDIA.**

### **I. TITULUA ARAU OROKORRAK**

#### **1. artikulua. Zer da ondare-gehikuntza.**

Pertsona fisiko baten ondareari ondasun eta eskubideak eranstea da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari lotuta dagoen ondare-gehikuntza, baldin eta haren sorburua Zergari buruzko Foru Arauko 4. artikuluaaren arabera zerga-betebeharraren sorrarazle diren zerga-egitateetako bat gauzatzea bada.

#### **2. artikulua. «Mortis causa» eskuraketak.**

Zergari buruzko Foru Arauko 4. artikuluko a) letran aipatzen diren eskuraketak kausatzailea hiltzen den egunean egindakotzat hartuko dira. Hori dela eta, zerga eskatzeko nahikoa izango da eskualdaketa egitate sortzailea frogatuta egotea, nahiz eta zerga autolikidatu gabe egon eta nahiz eta agiriak, inbentarioak edo banaketak formalizatu gabe edo likidatzeko aurkeztu gabe egon.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa ezingo zaie aplikatu jarauntsi bidezko eskuraketei, baldin eta eskuraketok eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-itunen ondorio badira, edo oinordetza-eskubideei uko egiteko oinordetza-itunen ondorio badira, edo komisarioak testamentu-ahalordea erabiltzetik datozen egintzen ondorio badira, edo ahalorde hori iraungitzeko bestelako arrazoen ondorio badira, azken egintza horiek hartzen duten forma zeinahi dela ere.

#### **3. artikulua. Bizitzaren gaineko aseguru-kontratuen arloko aldizkako prestazioak.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 4. artikuluko c) letran, 5. artikuluko e) letran eta 6. artikuluaaren e) letran aipatuta dauden kopuruak jasotzea beti dago zergari loturik, bai kopuru guztiak aldi batean jasotzen badira, bai -biziarteko edo aldi baterako- aldizkako prestazio moduan jasotzen badira.

2. Aldizkako prestazioak -biziarteko edo aldi baterakoak- jasotzea Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluan sortzapenari buruz ezarritakoaren arabera eraenduko da.
3. Artikulu honetan aipatutako kasuetan, Administrazioak, bere perituen irizpenaren bitartez, prestazioaren egungo balioaren kalkulu aktuariala erabili ahal izango du zerga-oinarria zehazteko.

## **II. TITULUA PROZEDURAK**

### **4. artikulua. Ondasunak jaraunspen-masari eransteko prozedura.**

1. Zerga Administrazioak, «mortis causa» eskuraketa baten inguruko aitortpena edo autolikidazioa eta -hala badagokio- eskuraketa horri dagokion agiria aurkeztu ondoren, egiaztatzen badu kausatzailearen ondasunen inbentarioan ez daudela Zergari buruzko Foru Arauko 24-27. artikuluetan eta 29. artikuluan aipatutako egoeretako batean dauden ondasunak, horren guztiaren berri emango die interesdunei, ondasunok jarauntsiko ondasunei eranstearekin ados dauden ala ez adieraz dezaten, eta 15 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.
2. Interesdunek eransketa onartzen badute, egin beharreko likidazioek zerga-oinarrian sartuko dute erantsi daitezkeen ondasunen balioa, edo, bestela, zuzendu egingo dira interesdunek ordaindutako autolikidazioak, likidazio osagarriak eginez, baldin eta aurkezteko modalitate hori aukeratu bada.
3. Interesdunek, horretarako duten epearen barruan, ez badiote erantzuten egin zaien proposamenari edo proposamena atzera botatzen badute, Zerga Administrazioak ondasunak eransteari buruzko erabakia emango du, erregelamendu honetan aitortpenak likidatzeko edo autolikidazioak egiaztatzeko ezartzen diren jarduketak jarraitzearen kalterik gabe.

Ondasunak eransteari buruzko erabakia berraztertze-errekurtsoaren bidez edo bide ekonomiko-administratiboan errekurritu ahal izango da.

4. Eransketa-prozeduran jotzen bada amaitutzat administrazio-bidea, Administrazioak likidazioak zuzendu ahal izango ditu edo egin beharreko likidazio osagarriak egin.
5. Espedientea izapidetzen den bitartean eta hura behin-betiko amaitu arte, geldiarazita geratuko da Administrazioak egin beharreko likidazioak egiteko duen ekintzaren preskripzio-epea.

### **5. artikulua. Zerga ordaindu ostean agerian jartzen diren kausatzailearen zorrak kentzeko prozedura .**

Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoaren arabera, Administrazioak egindako likidazioak edo interesdunek egindako autolikidazioak ordaindu ostean agerian jartzen diren kausatzailearen zorrak kentzeko prozedura erregela hauen arabera egingo da:

- 1.a. Interesdunek idazki bat aurkeztuko diote Zerga Administrazioari, zuzendu beharrekoa zuzen dezan eskatzeko, eta idazki horrekin batera aurkeztu behar dituzte edo zorra dagoela egiaztatzeko agiriak, edo zor hori likidazio edo autolikidazioei dagokien diru-sarrera egin ostean ordaindu dela egiaztatzeko agiriak.
- 2.a. Sinesgarriro egiaztatutzat hartzen bada edo zorra dagoela edo zorra ordaindu egin dela, dagokion zergaren zatia itzultzeko eskubidea aitortzeko erabakia hartuko da. Bestela, itzulketa ukatzeko erabakia hartuko da. Kasu bietan, erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie eta berraztertze-errekurtsoaren bidez edo bide ekonomiko-administratiboan errekurritu ahal izango da.

- 3.a. Kenkaria gauzatzeko, kendu ez den zorraren zenbatekoari dagokion zergaren zatia itzuli behar da, berandutze-interesik gabe; horretarako, zenbateko bi hauen arteko aldea izango da zati hori: batetik, benetan ordaindutako zenbatekoa; bestetik, likidazioa edo autolikidazioa egiterakoan zorraren zenbatekoa kendu izanez gero ordaindu beharko zatekeen zenbatekoa.

## **6. artikulua. Dohaintza-hartzaileak ordaindutako dohaintza-emailearen zorrak kentzeko prozedura.**

Zergari buruzko Foru Arauko 35. artikuluan ezarritakoaren arabera, dohaintza-emailearen zor bati dagokion zergaren zatia itzultzeko prozedurak zenbait erregela jarraitu behar ditu, baldin eta zor hori dohaintza-emaileak dohaintzan emandako ondasun horien gaineko eskubide errealekin bermatuta badago eta dohaintza-hartzaileak dohaintzari dagokion zerga ordaindu ondoren ordaindu badu zor hori. Hauek dira prozedura horrek jarraitu beharreko erregelak:

- 1.a. Interesdunak zuzenketa eskatu behar du, Zerga Administrazioari aurkeztu behar dion idazkiaren bidez, ordaindutako kuoten itzulketa eskatzeko eskubideak preskribatu aurretik.
- 2.a. Sinesgarriro egiaztatutzat hartzen bada dohaintza-hartzaileak zorra ordaindu duela, itzulketarako eskubidea aitortzeko erabakia hartuko da, baina ez da egongo berandutze-interesak jasotzeko eskubiderik. Bestela, itzulketa ukatzeko erabakia hartuko da. Kasu bietan, erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie eta berraztertze-errekurtsoaren bidez edo bide ekonomiko-administratiboan errekurritu ahal izango da.
- 3.a. Ordaindu den eta dohaintzaren zerga-oinarrian kendu ez den zorrari dagokion zergaren zatitzat zenbateko bi hauen arteko aldea hartuko da: batetik, benetan ordaindutako zenbatekoa; bestetik, likidazioa edo autolikidazioa egiterakoan zorraren zenbatekoa kendu izanez gero ordaindu beharko zatekeen zenbatekoa.

## **III. TITULUA BALIOAK EGIAZTATZEA**

### **7. artikulua. Likidazioak.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, autolikidazioa aurkeztu bada eta balioak egiaztatzean beharrezkoa bada peritu-tasazio kontrajarria erabiltzea (ezohiko bidea da hori), ez da likidaziorik egingo harik eta tasazio-eragiketa guztiak amaitu arte.

Batera jakinarazi badira Administrazioak egindako balio-egiaztapena eta hari dagokion likidazioa, likidazioa geldieran utziko da. Hala ere, inskribatu daitezkeen ondasunak Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izango dira, baina haien inskripzioan ohar bat jaso behar da, non zehaztuko den ondasunok haien balioak egiaztatzeko eragiketak amaitutakoan egin beharko litzatekeen likidazioaren ondorioen mende geratuko direla, betiere justifikatzen bada autolikidazioari dagokion diru-sarrera egin dela.

2. Autolikidazioa aurkeztu bada eta balioak egiaztatzean beharrezkoa bada peritu-tasazio kontrajarria erabiltzea (ezohiko bidea da hori), likidazioa egingo da aitortutako balioekin, tasazio-eragiketek aurrera jarraitzearen kalterik gabe; izan ere, eragiketa horien emaitza hartu beharko da aintzat egin beharreko likidazioak egiteko.

Gainera, batera jakinarazi badira Administrazioak egindako balio-egiaztapena eta hari dagokion likidazioa, likidazioa geldieran utziko da. Hala ere, lehenengo likidazioa ordaindu ostean, inskribatu daitezkeen ondasunak Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izango dira, baina haien inskripzioan ohar bat jaso behar da, non zehaztuko den ondasunok azken likidazioaren ondorioen mende geratuko direla.

3. Justifikatzen bada erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri dela Administrazioak egin eta administrazio-egintza bereizi baten bidez jakinarazitako balio-egiaztapenaren aurka,

likidazioa egingo da aitortutako balioekin, espedientea ebatzi ondoren egin beharreko likidazioak egitearren. Hori justifikatu ezean, egiaztatutako balioaren gainean egingo da likidazioa, baina kontuan hartuko dira aurrerago egin beharreko litezkeen zuzenketa guztiak eta, kasu honetan, ez da aplikatuko Zergari buruzko Foru Arauko 39. artikuluan aipatzen den likidazioen etete automatikoa.

Balio-egiaztapena eta hari dagokion likidazioa batera jakinaraziz gero, automatikoki soilik etengo da balioak egiaztatzearen ondoriozko zerga-oinarriaren gehikuntzari dagokion zerga-zorraren ordainketa, baina bai egin beharko da interesdunek aitortutako balioei dagokien zatiaren diru-sarrera.

#### **8. artikulua. Peritu-tasazio kontrajarria.**

Administrazioko peritu batek egindako balioztatzea beharrezkoa da baldin eta balio egiaztatuen kuantifikazioa ez bada egin Administrazioako perituaren irizpenaren bidez.

Perituek ez baleude ados ondasun eta eskubideen balioarekin eta Administrazioako perituak egindako tasazioa ez balitz %10 baino handiagoa edo txikiagoa zergapekoaren perituak egindako tasazioa baino eta, gainera, Administrazioako perituaren tasazioa ez balitz 120.000 euro baino handiagoa edo txikiagoa zergapekoaren perituak egindako tasazioa baino, azken tasazio hori erabiliko litzateke likidaziorako oinarri moduan.

### **IV. TITULUA ZERGAREN KUDEAKETA**

#### **9. artikulua. Aitorpen, autolikidazio eta agiriak aurkeztea.**

1. Zergadunek Ogasun eta Finantzen foru diputatuak horretarako berariaz emandako eremuan aurkeztu behar dute aitorpena edo autolikidazioa. Autolikidazioen kasuan, haien zenbatekoa Zergari buruzko Foru Arauko 69. artikuluan ezarritako epearen barruan ordaindu behar da, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten duen lekuan.
2. Aurreko zenbakian aipatutako aitorpen edo autolikidazioarekin batera notarioaren, epailearen eta administrazioaren agiriaren kopia kautotua aurkeztu behar da, zeinean agerrarazi edo aipatu behar den zein den zerga-egitatea sortzen duen egintza; agiri horren kopia soila ere aurkeztu behar da. Agiri pribatuen kasuan, haien ale bi aurkeztu behar dira -jatorrizkoa eta kopia-, autolikidazio-ereduarekin batera.

Halaber, aurkeztutako aitorpenei edo autolikidazioei Zergari buruzko Foru Arauaren, erregelamendu honen eta aurkezpen-ereduak onesten dituzten foru-aginduen arabera erantsi beharreko agiriak erantsi behar zaizkie.

Zerga honengatiko hobaria, murrizketa edo beste edozein zerga-onura erabili nahi den kasu guztietan, gainera, Zergari buruzko Foru Arauan haiez gozatzeko ezartzen diren baldintzak betetzen direla justifikatzeko agiriak aurkeztu behar dira, organo eskudunak emandakoak.

3. Aitorpena edo autolikidazioa telematikoki aurkeztu ahal izango da, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen kasuetan eta horretarako ezartzen dituen prozedura eta baldintzak beteta.

#### **10. artikulua. Aurkezlearen izaera eta betebeharraren errealaren ziozko zergadunen ordezkariak.**

1. Aitorpena edo autolikidazioa -eta bestelako agiriak- aurkezten dituena, halakoak aurkezte hutsagatik, zerga ordaintzera behartuta daudenen mandataria izango da, eta aurkeztutako aitorpen edo autolikidazioari lotuta mandatari horri egiten zaizkion jakinarazpenek interesdunei euren egindakoen balio bera izango dute eta ondorio berberak sortuko dituzte.

Aitorpenaren, autolikidazioaren eta bestelako agirien aurkezleak jakinarazpenetarako helbide moduan berak zerbitzuak eskaintzen dituen notario-, gestoria- edo aholkularitza-bulegoaren helbidea adierazi badu, jakinarazpena egin nahi den unean bulego horretan langile moduan edo jardueraren titular moduan dagoen edozein pertsonak jaso dezake jakinarazpena, nortasuna egiaztatu eta gero.

2. Aurkezlea ez bada zerga ordaintzera behartuta dauden guztien mandataria, berariaz jaso behar du egoera hori eta haren mandaturagileak nor diren izendatu behar du.

Kasu horretan, aurkezleari egiten zaizkion jakinarazpenen edo hark izenpetzen dituen dilijentzien ondorioek bakarrik eragingo diete aurkezleak, berariaz adierazitakoaren arabera, ordezkatzeko dituen pertsonen.

3. Aurreko zenbakian aipatzen diren kasuetan, aurkezpena egiteko epea amaituta, aurkezleak aurkeztutako aitorpenaren edukiaren berri emango zaie aurkezle horrek ordezkatzeko ez dituen, eta 15 eguneko epea emango zaie ados dauden ala ez adierazteko eta alegazioak aurkezteko.

Epe hori igarota eta aurkeztutako alegazioak ikusita, egin beharreko likidazioak egingo ditu Bulego Likidatzaileak, ezarri beharreko zehapenen kalterik gabe.

4. Aurkezleak uko egin diezaioke artikuluko honetako aurreko zenbakietan agiriak aurkezteko esleitutako mandatuari edo zergapekoek eurek ere ezeztatu dezakete, bulego likidatzaile eskudunean aurkeztutako idazkiaren bitartez. Azken horren ondorioz, idazkia aurkezten denetik aurrerako jarduketak zuzenean zergadunekin egin beharko dira.
5. Betebehar errearen ziozko zergadunek, Zergaren Foru Arauaren 2. artikuluko 2. apartatuan aipatzen direnek, egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean ez badute, Espainiako lurraldean egindako ondasun eta eskubideen eskuraketan aitorpena egiteko epealdia amaitu baino lehen, egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan daukan pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute beren ordezkaria izan dadin Zerga Administrazioaren aurrean zerga honengatik dituzten betebeharrei dagokienez.

Europako Esparru Ekonomikokoak izanik Europar Batasunekoak ez diren estatuen kasuan, aurrekoa ez da aplikatuko zerga informazioaren trukeari eta diru bilketari buruzko elkarrekiko laguntzaren gaineko araudia dagoenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean ezartzen denarekin bat etorriz.

Aurreko betebehar bera edukiko dute betebehar pertsonalaren ziozko zergadunek, hain zuzen ere Espainiako lurraldetik irteten badira zerga-egitatea ez Europar Batasunekoak ez Europako Esparru Ekonomikokoak izan ez eta zerga informazioaren trukeari eta diru bilketari buruzko elkarrekiko laguntzaren gaineko araudia daukan estatu baterako dokumentua edo aitorpena aurkeztu baino lehen, honako salbuespen honekin: dokumentuak aurkezteko arauzko epealdia amaitu aurretik itzuliko badira.

Izendapena Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaio, eta horrekin batera ordezkariaren berariazko onarpenera aurkeztu behar zaio.

## **11. artikulua. Aurkezteko epeak etetea.**

1. Baldin eta borondatezko testamentu-auzi edo -epaiketa sustatzen bada zerga honek zergapetutako zerga-egitateei buruzko egintza edo kontratuei dagokienez, interesdunek horren guztiaren berri eman beharko diote Zerga Administrazioari eta gutxienez 6 hilabetean behin jakinarazi behar diote auzi edo epaiketa horrek aurrera jarraitzen duela, harik eta amaitu arte.
2. Baldin eta Zergari buruzko Foru Arauko 69. artikuluan ezartzen diren aurkezteko epeen barruan borondatezko testamentu-auzi edo -epaiketa sustatzen bada, aitorpenak edo autolikidazioak eta dagozkion agiriak aurkezteko ezarritako epeak geldiaraziko dira, eta

prozedura judizialari amaiera ematen dion behin betiko ebazpena irmoa den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira berriro zenbatzen epe horiek.

3. Baldin eta borondatezko testamentu-auzi edo -epaiketa aitortpena edo autolikidazioa eta -hala badagokio- agiria aurkeztu ostean sustatzen bada, Administrazioak eten egingo ditu likidaziorako jarduketak, harik eta behin betiko ebazpena irmoa izan arte.
4. Baldin eta borondatezko testamentu-auzi edo -epaiketa aitortpena edo autolikidazioa eta -hala badagokio- agiria aurkezteko epea amaitu ostean sustatzen bada baina aurreko horiek oraindik aurkeztu gabe badaude, Zerga Administrazioak haiek aurkezteko errekerimendua egingo du, baina eten egin ditzake likidaziorako jarduketak, harik eta behin betiko ebazpen irmoa eman arte, ezarri beharreko zehapenen kalterik gabe.
5. Likidazioa egin ostean sustatzen badira, berriz, ordainketa geroratzea erabaki ahal izango da, Zergari buruzko Foru Arauko 71. artikuluko 4. zenbakian ezarritakoarekin bat etorritik.
6. Honako jarduketa judizial hauek ez dira auzigaitzat hartuko, artikuluko honetako aurreko zenbakietan aipaturiko epe-etetei dagokienez:
  - a) Testamentuak irekitzea edo eskritura publikoan jasotzea xede duten eginbide judizialak.
  - b) Aipaturiko onura edo hausnarketakoa dakarren jarauntsia onartzeko inbentarioak eratzea.
  - c) Tutorea, kuradorea edo defendatzaile judiziala izendatzea.
  - d) Abintestatoa edo testamentu-epaiketa aurretiaz eskatzea.
  - e) Jaraunsle-adierazpena, aurkakotzarik egiten ez bada.
  - f) Oro har, borondatezko jurisdikzio-jarduketak, auzi-izaerarik hartzen ez badute.

Legezko atzera-eskuratzerako demandak edo doako justiziaren onurarenak ez dituzte epeak etenaraziko, ezta testamentu-betetzearen edo abintestatoaren aurkako zorrak ordainarazteko erreklamazioek ere, baldin eta hartzekodunak ez badu aurretiaz judizio unibertuala eskatzen.

7. Borondatezko testamentu-epaiketa sustatzeak epeak geldiaraziko ditu, eta berriro ere zenbatzen hasiko dira, hain zuzen, edo zatiketa-eragiketak onesten dituen autoa irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik aurrera, edo aurkaratzearen kasuko auzia amaitzen duen epaia irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik aurrera, edo interesdun guztiek haiek sustatutako judizioan atzera egiten duten egunaren biharamunetik aurrera.
8. Artikulu honen ondorioetarako, demanda aurkeztu den egunean joko da hasitzat auzigaia.
9. Ondorio berberetarako, auzigaiekin berdinetariko dira testamentuaren edo eskualdaketa zehazten duen agiriaren faltsutasunari buruzko zigor-prozedurak.
10. Alderdi auzilariak zehar auzia jarraitzea eskatzeari uzten badiote sei hilabeteko epean, aitortpena edo autolikidazioa zein aurkeztu beharreko agiriak aurkezteak galdatu ahal izango die Administrazioak, bai eta auzipeko egintza edo kontratuari buruzko likidazioa egitea ere, epea amaitzen denean auziak ondorerik izan ez duela adieraziko balitz egin beharko litzatekeen itzulketa egitearren.

Auzitegiek auzia sorrarazi zuen eskaeraren iraungidura adierazten badute, epeak ez dira etentzat joko eta Administrazioak dagozkion zehapenak eta berandutze-interesak galdatuko ditu, Zergari buruzko Foru Arauko 69. artikuluan agiriak aurkezteko ezartzen den epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera, hain zuzen.

Autoak eteteak, alderdiek adostuta, honako hau ekarriko du: etete hori eskatzen duten egunetik aurrera berriro hasiko da zenbatzen aurretik eten zen aurkezteko epea.

11. Ez bada jakinarazten auziak aurrera jarraitzen duela -alegia, artikuluko honetako 1. zenbakian ezarritakoa betetzen ez bada-, aitorpena edo autolikidazioa zein aurkeztu beharreko agiriak aurkeztea galdatu ahal izango du Administrazioak, bai eta egin beharreko likidazioa egitea eta dagozkion zehapenak eta berandutze-interesak ordaintzea ere.

## **12. artikulua. Aurkezteko lekua.**

Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztutako lekuan aurkeztu behar dituzte zergadunek erregelamendu honetako 9. artikuluan aipatzen diren autolikidazioak, aitorpenak eta gainerako agiriak.

Hala ere, zergadunek aukera izango dute aitorpen, autolikidazio eta agiri horiek erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera eskudunak diren hipoteka-barrutiko bulego likidatzaileetan aurkezteko.

## **13. artikulua. Aitorpenaren izapidetzea.**

1. Zerga Administrazioak artikuluko honetako hurrengo zenbakietan ezarritakoa bete behar du aitorpena Zergari buruzko Foru Arauko 66. artikuluan ezarritakoaren arabera aurkezten duten zergadunei dagokienez.
2. Dagozkion bulego likidatzaileak, aitorpena eta -hala badagokio- agiria aurkeztu ondoren, haiek jaso izanaren agiria emango du, eta bertan adieraziko da aitorpen-agiriok zer egunetan sartu diren sarrera-erregistroan eta zer aurkezpen-zenbaki duten.

Aitorpen horrekin batera erregelamendu honetako 9. artikuluko 2. zenbakian adierazitako agiriak aurkeztu behar dira.

3. Zerga-egitateak kalifikatzeko beharrezkoak diren datu eta aurrekari guztiak aurkeztuta baleude baina balioak egiaztatu behar ez balira, egin beharreko likidazioak egingo ditu Bulego Likidatzaileak edo salbuespena edo zergapetuta ez egotea adieraziko du.
4. Interesdunek beste datu edo aurrekaririk erantsi beharko balute, 15 eguneko epea emango zaie hala egin dezaten.

Erantsi ondoren, baliorik egiaztatu behar ez balitz, aurreko zenbakian aipaturik dagoen bezala jokatu da.

Erantsiko ez balituzte, eta dagozkion zehapenen kalterik gabe, likidazioa egin ahal izango da interesdunek dagoeneko aurkeztutako datuak zein Administrazioak dituenak oinarri harturik.

5. Beharrezko datu eta aurrekari guztiak izanda beharrezkoa balitz balioak egiaztatzea, bada, kasu horretan, erregelamendu honetako 7. artikuluan ezarritako prozedura jarraituko litzateke eta, hura amaitutakoan, likidazioak egingo lirateke, hala egin behar izanez gero.
6. Zerga ordaindu dela egiaztatu ondoren edo salbuespena edo zergapetuta ez egotea adierazi ondoren, Bulego Likidatzaileak aitorpen-ereduaren ale bat eta jatorrizko agiria itzuliko dizkio aurkezleari, ohar batekin batera, zeinaren bidez egiaztatuko den agiria aurkeztu dela eta zerga ordaindu dela edo salbuespena edo zergapetuta ez egotea adierazi dela.

## **14. artikulua. Autolikidazioak izapidetzea.**

1. Zerga Administrazioak artikuluko honetako hurrengo zenbakietan ezarritakoa bete behar du, Zergari buruzko Foru Arauko 66. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera beren



zerga-zorren zenbatekoa zergadunek eurek autolikidazio bidez zehazten duten zergadunei dagokienez.

2. Zergadunek, autolikidazioarekin batera, erregelamendu honetako 9. artikuluko 2. zenbakian aipatutako agiriak aurkeztu behar dituzte dagokion bulego likidatzailean, eta bulego horrek haiek jaso izanaren agiria emango die, eta bertan adieraziko du zer egunetan sartu diren sarrera-erregistroan, zer aurkezpen-zenbaki duten eta zein den aurkeztutako autolikidazioen erreferentzia-zenbakia.
3. Autolikidaziotik ateratzen den kuota ordaintzeko bada, behin aurreko zenbakian eginiko izapidea egin ondoren, tributu-administrazioak dagokion ordainketa-gutuna igorriko du, eta zergadunak zerga-bilketako edozein erakunde laguntzailean egin beharko du ordainketa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 165. artikuluan adierazitako epeetan.
4. Autolikidaziotik ez bada ordaintzeko zerga-kuota ateratzen, autolikidazioa -agiriekin batera- zuzenean aurkeztu behar da dagokion bulego likidatzailean.
5. Bulego likidatzaileak autolikidazioa egiteko ereduaren ale bat eta jatorrizko dokumentua itzuliko dizkio aurkezleari, ohar batekin batera, zeinaren bidez egiaztatuko den dokumentua aurkeztu dela eta zerga-zorra ordaindu dela edo salbuespena edo zergapetuta ez egotea alegatu dela.
6. Bulego Likidatzaileak aztertu eta kalifikatu egingo ditu agirietan jasotako zerga-egitateak eta, hala badagokio, likidazio osagarriak egingo ditu, baldin eta ikusten badu, besteak beste, errakuntza materialak edo kalifikaziokoak daudela edo zergadunek autolikidatu ez dituzten zerga-egitateak daudela; orobat egingo ditu likidazio osagarriak balioak egiaztatzearen ondorioz, ondasunak gehitzearen ondorioz edo kausatzailearen ondasun berriak aurkitzearen ondorioz hala egin behar bada.

Beste datu edo aurrekaririk erantsi beharko balitz, interesdunei 15 eguneko epea emango zaie, Bulego Likidatzailean aurkez ditzaten.

7. Beharrezko datu eta aurrekari guztiak izanda beharrezkoa balitz balioak egiaztatzea, bada, kasu horretan, erregelamendu honetako 7. artikuluan ezarritako prozedura jarraituko litzateke eta, hura amaitutakoan, likidazioak egingo lirateke, hala egin behar izanez gero.

#### **15. artikulua. Aitorpen partzialak.**

1. Likidazio partzialak egiteko prozedura zergadunak aitorpen-eredua aurkezten duenean hasiko da, eta bertan zerrendatu behar du zer ondasun eta eskubiderentzat eskatzen duen likidazio partziala, haien deskripzioa eta balioa adierazita.
2. Aurkeztutako aitorpena ikusita, Bulego Likidatzaileak likidazioa partziala egingo du, eta zergaren tasa edo tarifa aplikatuko die aitorpen horretako ondasun-eskubideei, bai eta Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako salbuespenak eta murrizketak ere, arauan bertan ezarritako muga eta betekizunekin.
3. Likidazio partziala aurkezten duten zergadunek, ondoren, haiek eskuratutako ondasun eta eskubide guztiei dagokien aitorpena edo autolikidazioa egin beharko dute.
4. Artikulu honetan berariaz arautzen ez diren kasu guztietan erregelamendu honetako 13. artikuluan araututako prozedura orokorra aplikatuko da.

#### **16. artikulua. Autolikidazio partzialak.**

1. Autolikidazio partziala aurkezteko prozedura autolikidazio-eredua dagokion bulego likidatzailean aurkezten denean hasiko da, eta bertan zerrendatu behar da autolikidazio partziala zer ondasun eta eskubideri dagokien, haien deskripzioa eta balioa adierazita.

2. Autolikidazio partziala egiteko, aitortutako ondasun-eskubideei zergaren tasa edo tarifa aplikatuko zaie, bai eta Zergaren Foru Arauan ezarritako salbuespenak eta murrizketak ere, arauan bertan ezarritako muga eta betekizunekin.
3. Autolikidazio partziala aurkezten duten zergadunek, ondoren, haiek eskuratutako ondasun eta eskubide guztiei dagokien aitortpena edo autolikidazioa egin beharko dute.
4. Artikulu honetan berariaz arautzen ez diren kasu guztietan erregelamendu honetako 14. artikuluan araututako prozedura aplikatuko da.

#### **17. artikulua. Jarauntsiaren komisarioaren betebeharrak.**

«Alkar-poderoso»ari edo testamentu-ahaloreari lotutako jarauntsietan, jarauntsiaren komisarioak erregelamendu honetako 9. artikuluko 2. zenbakian adierazitako aitortpena eta agiriak aurkeztu behar ditu, jarauntsiko ondasunen inbentarioarekin batera, Zergari buruzko Foru Arauko 69. artikuluan aipatzen den aurkezteko epearen barruan.

Testamentu-ahalorea edo «alkar-poderoso»a erabiltzearen zain dauden ondasun-eskuraketetan, ahalordea erabiltzen den egunean edo hura iraungitzeko beste arrazoi bat gertatzen den egunean hasiko da zenbatzen aitortpen, autolikidazio eta agiriak aurkezteko epea.

Era berean, komisarioak, testamentu-ahalorea modu ezeztazinean -hala partzialki nola osorik- erabiltzen den egunetik edo hura iraungitzeko beste arrazoi bat gertatzen den egunetik aurrera zenbatutako epean, aurreko horiek jakinarazi behar dizkio Zerga Administrazioari, eta ahalordea erabili dela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar dio edo beste modu batean justifikatu beharko du ahalordea iraungi dela.

Jakinarazpen horretan beti identifikatu behar da, beren beregi, testamentu-ahalorea erabiltzeak edo hura iraungitzeko beste arrazoi bat gertatzeak zer ondasun edo eskubideri eragin dien, zein kausaduni adjudikatu zaizkien ondasun-eskubideok eta zer egunetan gertatu den jarauntsi-eskuraketa horiei dagokien zergaren sortzapena.

Halaber, komisarioak Zerga Administrazioari komunikatu behar dizkio testamentu-ahalorea erabili gabe duen jaraunspeneko ondare-elementuen inbentarioan alargunak edo bizirik dirauen izateko bikotekideak Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko 2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera egindako xedapen-egintzen ondorioz gertatzen diren aldaketak, baldin eta ondare-aldaketa horiek ez badute eragiten Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena.

Komunikazio horretan identifikatu behar da zer ondasun eta eskubide eskualdatzen den eta, hala badagokio, zer ondasun eta eskubide eskuratzen diren haien orde. Komisarioak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru-agindu bidez zehazten duen eredu, epe eta lekuan komunikatuko ditu aurreko paragrafoan aipatzen diren aldaketak. Aitortpen informatibo hori telematikoki aurkeztu ahal izango da.

#### **18. artikulua. Jaraunsleak ezezagunak diren kasua.**

«Mortis causa» eskuraketetan, baldin eta jaraunsleak ezezagunak badira, jarauntsiko ondasunen administratzaileek edo edukitzaileek erregelamendu honetako 9. artikuluan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte, jaraunseen zerrenda izan ezik, agiriak aurkezteko ezarritako dauden epeak amaitu baino lehen; eta likidazioa egiteko aurkezpen-epean eskatu ahal izango dute etetea, arrazoi zuzena dagoela justifikatuz gero. Administrazioaren iritziz arrazoi hori frogatzen ez bada, likidazioa egingo da kausatzailearen ordezkartzaren kontura, eta, horretarako, Zergari buruzko Foru Arauan arrotzen arteko oinordetzarako definitzen den tarifa aplikatuko zaio likidazio-oinarriari; nolana ere, sobera ordaindutakoa itzuli ahal izango zaio, jaraunsleak ezezagunak direnean eta haien eta kausatzailearen arteko ahaidetasuna justifikatu ostean.

Zergari buruzko Foru Arauko 52. artikuluko 2. zenbakiko fideikomisoen kasuan, aurreko zenbakian ezarritakoa aplikatuko da.

#### **19. artikulua. Zerga ordaintzeko txekea egitea.**

Zergari buruzko Foru Arauko 71. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitakoaren ondorioetarako, interesdun guztiek hala eskatuz gero eta likidazioak edo autolikidazioak ordaintzeko bada, Bulego Likidatzaileak baimena eman diezaieke finantza- edo aseguru-erakundeei erakundeotan kausatzailearen izenean gordailatuta dauden baloreak, partaidetzak edo eskubideak besterentzeko edo itzultzeko zein kausatzailearen izenean finantza- edo aseguru-erakundeetan dauden kontuen saldoak mobilizatzeko eta, ondoren, zenbateko horien kontura, dagozkion txekiek egiteko Bizkaiko Foru Ogasunaren izenean.

Baimenerako eskaerak ez du inola ere etengo zerga ordaintzeko epea.

Baimena Foru Ogasuneko Bulego Likidatzaile Nagusian edo dagozkion hipoteka-barrutiko bulego likidatzaileetan jasoko da.

## **V. TITULUA GERORAPEN ETA ZATIKAPEN BEREZIAK**

#### **20. artikulua. Kausadunak ezezagunak izanez gero likidazioak geroratze.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 71. artikuluko 4. zenbakiko b) letran ezarritakoaren arabera eta jarauntsiko ondasunen administratzaileek edo edukitzaileek hala eskatuta, organo eskudunek «mortis causa» eskuraketak direla-eta egindako likidazioen gerorapena eman ahal izango dute, harik eta kausadunak ezagunak izan arte, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:
  - a) Gerorapena Zergari buruzko Foru Arauko 71. artikuluan aipatzen den ordaintzeko epea amaitu aurretik eskatzen bada.
  - b) Ondasunen inbentarioan ez badago likidazioak ordaindu ahal izateko behar besteko eskudirurik edo erraz diru bihurtzeko moduko ondasunik.
  - c) Eskaerarekin batera aurkezten bada zor printzipala eta berandutze-interesak gehi zenbateko horien baturaren %25 estaltzen dituen bermea eratzeko konpromisoa. Gerorapena behin betiko ematea bermea eratzearen baitan geratuko da.
2. Artikulu honetan aipatutako gerorapena emateak haren sortzapena hasten den egunean indarrean dagoen berandutze-interesa ordaindu beharra dakar.

#### **21. artikulua. Gerorapena errenta moduan kobratu diren bizitzaren gaineko aseguru-kontratuen kasuan.**

Zergari buruzko Foru Arauko 71. artikuluko 4. zenbakiko c) letran ezarritakoaren arabera, bizitzaren gaineko aseguruetan kausatzailea, aldi berean, kontratugilea edo aseguru kolektiboko aseguraturua ere bada eta aseguruaren zenbatekoa biziarteko edo aldi baterako errenta moduan jasotzen bada, dagokion zergaren ordainketa onuradunak eskatuta zatikatuko da, baina, horretarako, honako erregela hauek hartu behar dira kontuan:

- 1.a. Onuradunak zerga-oinarrian sartu behar du errenta horren egungo balioa, zeina kalkulu aktuarialeko irizpideen arabera zehaztuko den.
- 2.a. Zenbait baldintza betetzen badira, organo eskudunek artikulu honetan aipatutako zerga-kuoten ordainketa zatikatzea erabakiko dute; hauek dira baldintzok:
  - a) Autolikidazioa Zergari buruzko Foru Arauko 69. artikuluan ezarritako epeen barruan aurkeztu bazaio dagokion bulego likidatzaileari.

- b) Zatikapena Zergari buruzko Foru Arauko 71. artikuluan zerga-zorra ordaintzeko aipatzen den epea amaitu aurretik eskatzen bada.
- 3.a. Organo eskudunek erabakiko dute zer urte kopururako egiten den zatikapena: errenta aldi baterakoa bada, errenta hori jasotzen den urteetan zehar zatikatuko da ordainketa; biziarteko errenta bada, berriz, gehienez ere 15 urtean zatikatuko da.
- 4.a. Zatikatzea ebazten bada, ez da beharrezkoa inolako kuziorik eratzzea edo dagokion berandutze-interesa ordaintzea.
- 5.a. Eskaera hiru hilabeteko epean ebatzi behar da, aurkezten denetik zenbatuta, eta onetsitzat joko da baldin eta epe hori igaro bada baina zergadunari ez bazaio eskaeraren ezespena jakinarazi.
- 6.a. Zatikako ordainketari dagokion urteko diru-sarreraren zenbatekoa eragiketa honen bidez lortuko da: zatikatzen den kuotaren zenbatekoa zati errenta jasotzen den urte kopurua, errenta aldi baterakoa bada, edo zati hamabost, biziartekoa bada.

Urteko zatikako ordainketari dagokion diru-sarrera errentaren urteko bakoitza osorik jaso eta hurrengo urtarrilean egin behar da.

- 7.a. Erreskate-eskubidea erabiltzen bada, ordaindu gabe dauden zatikako ordainketa guztiak eskubidea erabiltzen den egunetik aurrerako hogeita hamar egunen barruan ordaindu behar dira.

Errenta iraungitzen bada, benetan jaso den errentaren urtekoari dagozkion zatikako ordainketak baino ez dira egin behar, artean ordaindu ez badira, eta jaso ez diren errentaren urtekoei dagozkienak ez dira ordaindu behar.

## **22. artikulua. Gerorapena enpresa indibidualaren dohaineko eskualdaketa egiten den kasuan.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 71. artikuluko 4. zenbakiko d) letran ezarritakoaren arabera, organo eskudunek, zergadunek eskatuta, 4 urteko gerorapena eman ahal izango dute industria-, merkataritza-, artisautza- edo nekazaritza-jarduera edo jarduera profesionala egiten duen enpresa indibidual bat, «inter vivos» edo «mortis causa», dohainik eskuratzearen ondorioz egindako likidazioak edo aurkeztutako autolikidazioak ordaintzeko.

Eskaera Zergari buruzko Foru Arauko 71. artikuluan aipatzen den ordaintzeko epea amaitu aurretik egin behar da, eta eskaerarekin batera zorraren printzipala eta legezko interesa gehi zenbateko horien baturaren %25 estaltzen dituen berme nahikoa eratzeko konpromisoa aurkeztu behar da.

2. Aurreko zenbakian aipatuta dagoen kasuan, ez da berandutze-interesik sortuko ordainketa geroratuta dagoen epean zehar.
3. Artikulu honetan aipatutako gerorapenek eskualdatutako enpresaren balio egiaztatuari dagokion zerga-zorraren parte proportzionalari eragiten diote, kausadun bakoitzaren jarauntsiko ondasun guztiei dagokienez.

## **VI. TITULUA BULEGO LIKIDATZAILEAK**

### **23. artikulua. Hipoteka-barrutiko bulego likidatzaileen eskumenak.**

1. Zerga honi dagokionez, jabetza-erregistratzaileen kargurako hipoteka-barrutiko bulego likidatzaileei esleitu zaie jarraian adierazten diren agiriak eta egintzak kudeatzeko, likidatzeko zein borondatzeko epean biltzeko eskumena. Hauek dira agiri-egintzak:

- a) Hipoteka-barrutiaren mugapean emandako edo izenpetutako agiriak edo egintzak.
  - b) Jabetzaren erregistroetan edo ondasun higigarrien erregistroetan inskribatu daitekeen edozein ondasun edo eskubide xedetzat duten agiriak edo egintzak.
  - c) Agiri edo egintza guztiak, baldin eta edozein zergadunek edo, «mortis causa» eskualdaketetan, kausatzaileak ohiko egoitza dagokion hipoteka-barrutiaren mugapean badu edo izan badu.
2. Aurreko zenbakian ezarritakoarekin bat eskuduna den edozein bulegotan aurkez daitezke agiriak, edo Foru Ogasunaren Bulego Likidatzaile Nagusian.
  3. Agiria bulego likidatzaile eskudun batean aurkezten bada, bulego horrek egin eta galdutako ditu agiriaren ondoriozko likidazio edo autolikidazio guztiak.
  4. «Mortis causa» eskualdaketetan, oinordetza bati buruzko agiri guztiak haietako lehenengoa aurkeztu izana egiaztatu den bulegoan aurkeztu beharko dira likidatzeko edo autolikidatzeko; bigarren agirietan eta hurrengoetan, ordea, ez da zertan aplikatu behar artikuluko 1. zenbakian ezartzen dena.
  5. Zerga honen ikuskaritza beti dagokio Bizkaiko Foru Aldundiari.

## **VII. TITULUA ERREGISTROA IXTEA**

### **24. artikulua. Erregistroa ixtea.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 76. artikuluan ezarritako ondorioetarako, zerga ordaindu izana kasu honetan joko da egiaztatutzat: agiriak erantsita badarama ordainketa justifikatzen duen oharra, harekin batera aitortenaren edo autolikidazioaren eta ordainketa-gutunaren -kasu bakoitzean dagokionaren- ale bat aurkezten bada, kasuan kasuko bulego likidatzaileak behar bezala zigilatuta, eta haietan jasota geratzen bada zergaren ordainketa edo salbuespenaren edo zergapetuta ez egotearen deklarazioa edo alegazioa.
2. Nolanahi ere den, erregistratzaileak inskripzioaren albo-ohar baten bitartez agerraraziko du ezen eskualdatutako ondasun edo eskubidea egin beharreko likidazio edo autolikidazio osagarriak ordaintzeari loturik dagoela.

Erregistratzaileak emandako albo-oharrean nahitaez adierazi behar da zer zenbateko ordaindu den likidazioarengatik edo autolikidazioarengatik, bai eta zer egun eta lekutan ordaindu den ere; gainera, beharrezkoa denean, bulego likidatzaile eskudunak esleitutako espediente-zenbakia ere adierazi behar da, salbuespena edo zergapetuta ez egotea deklaratu edo alegatu ez bada.

3. Oharra ofizios emango da, eta efekturik gabe geratuko da eta ezeztatu egin beharko da haren bidez ordainketa bermatzen zitzairen likidazioen ordainketa-gutuna aurkezten denean, edo beste era batera sinesgarriro egiaztatzen denean haien ordaindu direla, eta, edozein kasutan, haien datatik lau urte igarotzen direnean.
4. Era berean, artikulua honetan ezarritako arauak aplikatuko zaizkie Zergari buruzko Foru Arauko 76. artikuluan aipatutako erregistroen titularren mende etorkizunean ezartzen diren erregistro publikoei.
5. Zergari buruzko Foru Arauko 10. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitakoaren ondorioetarako, artikulua honetan ezarritakoari jarraituko zaio.